

Kontratuen erregistroa 2018an

K O N T R A T A T U T A K O P E R T S O N A K

2018an 313.547 pertsona kontratatu dira, joan den urtean baino 15.266 gehiago. 2018an kontratatutako pertsona desberdinen urte arteko hazkundera 2017koa baino handiagoa izan da (+11.681), eta baita 2016koa baino, baina ez da 2015ekoa bezain handia izan (+24.642).

• S E X U A

2018an 166.216 gizon eta 147.331 emakume kontratatu dira. Kontratutako gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa izan da ostera. Krisi-garaian kolpatuak izan ziren jarduera maskulinizatu batzuk suspertu egin dira, eta horrek azal lezake kontratazioan gizonen alde izan den abantaila txiki hori. Aurreko urtean ez bezala, sexuaren araberako kontratazioan ez da ia aldeirik egon (+7.865 eta +7.581, hurrenez hurren).

• A D I N A

Kontratutako pertsonen batez besteko adina 36,54 da, eta altuxeagoa da emakumeena (36,57) gizonena baino (36,52). Kontratutako langile gazteenak, batez beste, lanbide teknikoetakoak –goi-mailakoak nahiz laguntzakoak– eta zerbitzuen arlokoak dira; horien batez besteko adina 35 urtetik beherakoa da. Zaharrenak, berriz, zuzendaritza-lanetan kontratatutakoak dira; batez beste 40 urtetik gorakoak dira. Lanaldi partzialean kontratatutako pertsonak gainerakoak baino gazteagoak dira: horien batez besteko adina 35,88 urte da; 34,67 gizonena eta 36,47 urte emakumeena. Kontratu mugagabeaz kontratatutako multzoa eta aldi baterako kontratuen adina antzerakoa da (36,52 urte eta 36,57 urte, hurrenez hurren).

• J A T O R R I A

2018an kontratatutako pertsonen % 15,1ek atzerriko nazionalitatea du; joan den urteko ehunekoa baina zertxobait altuagoa. Kontratutako pertsona atzerritarren %35ak Latinoamerikako herrialde bateko nazionalitatea du, %15,2ak Europako Erkidegokoa ez den Europako herrialde batekoa, %14,6ak Afrikako iparraldeko herrialde batekoa, %15,7ak Europako Erkidegoko herrialde batekoa eta %11ak Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde batekoa eta %9,4ak Asiakoa. Pertsona atzerritarrak bertakoak baino apur bat gazteagoak dira (36,40 eta 36,57 urte, hurrenez hurren). Kontratazio-kopuru esanguratsua duten atzerritarren artean, Latinoamerikatik eta Afrika iparraldetik heldutako pertsonak dira gazteenak (35,77 eta 36,17 urte, hurrenez hurren), eta Saharaz azpiko Afrikatik heldutakoak zaharrenak (37,39 urte). Azken urtean, kontratatutako atzerritarren artean gehien hazi direnak Afrika iparraldetik heldutakoak dira, eta gutxien hazi direnak, berriz, Europa Erkidegokoa ez den herrialde batetik etorritakoak.

• P R E S T A K U N T Z A - M A I L A

Kontratutako pertsonen 44,9k oinarrizko prestakuntza maila du –gehienez ere derrigorrezko hezkuntza amaitu du–, %20,7k batxilergoko ikasketak egin ditu, %16,5k lanbide-heziketakoak, eta gainerako %17,7ak unibertsitate-ikasketak. Hala urteko erreferentzian, bai balore absolutuetan (+8.342) eta baita erlatiboetan ere (%6,38), gehien hazi den prestakuntza profila oinarrizko ikasketak dituenarena da. Prestakuntza-maila apaleko pertsonen lanegonkortasun txikiagoa izan ohi dute, eta, ondorioz, aktibitate handiagoa eragiten dute kontratuen erregistroan.

Kontratuen erregistroa 2018an

K O N T R A T U E N K O P U R U A K

2018an 1.001.181 kontratazio izan dira EAEn, eta horietatik 88.625 (% 8,8) mugagabeak izan dira. Kontratu mugagabea izan duten gizonen ehunekoa (%9,2) emakumeena baino handixea goa da (%8,5). Kontratazioa %4,5 hazi da aurreko urtearekiko.

• J A R D U E R A E K O N O M I K O A

2018an gehien hazi diren jarduera ekonomikoak honako hauek izan dira: ostalaritzakoak (+11.491), garraiokoak (+4.488) eta informazioa eta komunikaziokoak (+5.705). Azken urte honetan hiru jarduera izan dira soilik jaitsi direnak; finantza eta aseguruak (-630), osasunekoak (-289) eta beste zerbitzu batzuk (-205).

• L A N B I D E A

Azken urtean kontratu gehien eragin dituzten lanbide-profilak izan dira, lehenik, kalifikazio-maila bat duten zerbitzuen sektorekoak (% 31,1) eta, bigarrenik, kalifikatu gabeko lanpostuak (% 30,8). Bestalde, kontratazioa gehien hazi den lanbide-profilak hauek izan dira: kualifikatu gabeko langileak (+19.399), zerbitzuetako kalifikatutako langileak (+9.872), zientzia-arloko teknikariak eta profesionalak (+8.573) eta teknikariak eta laguntza emateko profesionalak (+4.986). Sinatutako kontratuen kopuruan behera egin duten operadore lanpostuenak (-2.356) eta industriako kualifikatuenak (-356).

• K O N T R A T A Z I O - M O T A

Kontratuen % 8,8 mugagabea izan da; gizonen %9,2k eta emakumeen %8,5k izan dute kontratu-mota hori. Gizonen ehunekoa handiagoa da, 2017an gertatutakoaren antzera, baina aurretengo portzentajeak altuxegoak dira. Esan ohi denaren kontra, kontratu mugagabeen kopurua ez da txikia, urtean zehar horrelako 88.625 kontratu sinatu baitira (azken urtean 15.297 gehiago izan dira). Arazoa, itxura batean, kontratu mugagabe horien egonkortasun-eza da; izan ere, horiek benetan egonkorrak balira, urtea gutxitan aldi baterako kontratua duten 200.000 pertsona ingururen kontratuzko harremanak bermatzea lortuko litzateke, eta hori ez da gertatzen.


2018an sinatutako 5 kontratutik 2 baino gehixeago (%39,9) lanaldi partzialekoak dira; erdiak baino gehiago emakumeetan (%53,3) eta 4tik 1 baino gehiago gizonetan (%26,5). Kontratazio-mota horren arazo handiena da kontratu gehienak ez direla borondatezkoak, eta hori kontratuzko harremanaren kalitate eskasaren adierazgarri da.

Lanaldi partzialeko kontratuen ehuneko handienak ageri dituzten jarduera ekonomikoak honako hauek dira: ostalaritza (%67,7), etxeetako jarduerak (%61,9), hezkuntza (%61,5) eta beste zerbitzu batzuk (%53,8). Lanbide-profilei dagokionez, lanaldi partzialeko kontratazioen ehuneko handiena duena zerbitzuetako langileena da (%60), eta txikiena, berriz, lehen sektoreko langileena (%6,2) eta manufaktura-industrietako langile kalifikatuena (%8,6).


• J A T O R R I A

2018ko kontratuen %12,6 pertsona atzerritarrek sinatu dute; ehuneko hori joan den urtekoa baino handiagoa da (%11,1). Atzerritik heldutako pertsonak sinatutako kontratuetan, pertsona horien jatorri nagusia Latinoamerika da (%35,8), eta, ondoren, Afrikako iparraldea (%17,1) eta Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde bat (%16,7).

Kontratu guztiak jatorriaren arabera



Kontratutako pertsonak jatorriaren arabera %



Grafiko hauek erakusten dute pertsona atzerritarren ehunekoak pertsona horien kontratuen guztizkoa baino handiagoa dela, eta horrek aditzera ematen du atzerritik heldutako pertsonen errotazioa bertan jaiotakoena baino handiagoa dela. Horren oinarrian egon litekeen faktore bat da pertsona atzerritarrek kalifikazio apalagoko eta lan-baldintza kaskarragoko lanpostuak izan ohi dituztela; enpresari batzuek gehiago fidelizatzen dituzten langile atzerritarrak, lan-baldintza okerrenak hobeto onartzen dituztelako. Beste faktore bat izan liteke pertsona atzerritarrek, kalifikazio apalagoa izanik, lan kaskarragoekin etsitzen dutela eta sarritan ez dituztela lan-aukera hobeak bilatzen.

• P R E S T A K U N T Z A - M A I L A

Prestakuntza-mailaren arabera banandutako datuen analisiak erakusten du kontratu gehien-gehienak oinarritzko prestakuntza-maila duten pertsonek sinatu dituztela (%44,7). Batxilergoko ikasketak egin dituzten pertsonek kontratuen %21,9 sinatu dute -5 kontratutik 1 baino gehiago-, lanbide-heziketako ikasketak egin dituztenek %18,6, eta unibertsitate-ikasketak egin dituztenek %14,5.

• L U R R A L D E H I S T O R I K O A K

Lurralde historikoen artean, sinatutako kontratuen lanpostuen %19,2a Araban dago, %51,6a Bizkaian eta gainerako % 29,2a Gipuzkoan. Arabak bere biztanle-kopuruari erreparatuta espero litekeena baino kontratazio-ehuneko handiagoa du, eta Gipuzkoak txikiagoa; Bizkaian, kontratazio-ehuneko espero litekeenaren oso antzekoa da.

Aurten, kontratazioek gora egin dute hiru lurralde historikoetan: Araban %5,4 (9.899 kontratu gehiago), Gipuzkoan %4 (11.189 kontratu gehiago) eta Bizkaian %4,4 (21.993 kontratu gehiago).

• B E S T E R E N Z E R B I T Z U A N J A R T Z E K O K O N T R A T U A K (A B L E)

2018an sinatutako 6 kontratutik bat baino gehixeago (% 19,8) aldi baterako laneko enpresen bitartez egin dira. ABLEen bitartez egindako kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonetan emakumeetan baino. Gizonetan, lau kontratutik ia 1 (%27,1) horrelako enpresa batek egindakoa izan da, eta emakumeetan, berriz, kontratazioen %12,5 bakarrik egin du ABLE batek.

Lurralde historikoen artean alde handiak daude: kontratazio-mota hori gehien erabili den lurraldea Araba izan da (%23,8), ondoren Bizkaia (%21,3) eta Gipuzkoako ehunekoak nabarmen apalagoak dira (%14,5).


Kontratuen erregistroa 2018an

ABLEen bitartez kontratu gehien egin diren lanbide-taldeak honako hauek dira: kalifikaziorik gabeko langileak (%54,1), kalifikazio-maila bat duten zerbitzuen sektorekoak (%13,6) eta industriako langileak (%12,7).

Industriako langileen ia herenak (%33,1) ABLE baten bitartez egiten dira. ABLEen bitartez kontratu-kopuru dezente egiten diren beste langile talde bat kualifikaziorik gabekoena da (% 34,9).

Aurreko urtearekin alderatura, aldi baterako laneko enpresen bitartez egindako kontratuak %10,6 hazi dira.

ABLE bidezko kontratuak



Kontratuen erregistroa 2018an

| | | 2018 | 2017 | Aurreko urtearekiko | |
|-------------------|--------------------------------|-----------|---------|---------------------|--------|
| | | | | Saldoa | Bil. % |
| Mota | Mugagabea | 88.625 | 73.328 | 15.297 | 20,86% |
| | Aldi baterakoa | 912.556 | 884.772 | 27.784 | 3,14% |
| | Guztira | 1.001.181 | 958.100 | 43.081 | 4,50% |
| | Mugagabeen % | 8,9% | 7,7% | | |
| Sexua | Gizona | 500.919 | 479.691 | 21.228 | 4,43% |
| | Emakumea | 500.262 | 478.409 | 21.853 | 4,57% |
| | Guztira | 1.001.181 | 958.100 | 43.081 | 4,50% |
| | Emakumeen % | 50,0% | 49,9% | | |
| Mugagabea | Gizona | 46.048 | 38.200 | 7.848 | 20,54% |
| | Emakumea | 42.577 | 35.128 | 7.449 | 21,21% |
| | Guztira | 88.625 | 73.328 | 15.297 | 20,86% |
| Aldi baterakoa | Gizona | 454.871 | 441.491 | 13.380 | 3,03% |
| | Emakumea | 457.685 | 443.281 | 14.404 | 3,25% |
| | Guztira | 912.556 | 884.772 | 27.784 | 3,14% |
| Guztira | Gizona | 500.919 | 479.691 | 21.228 | 4,43% |
| | Emakumea | 500.262 | 478.409 | 21.853 | 4,57% |
| | Guztira | 1.001.181 | 958.100 | 43.081 | 4,50% |
| Mugagabeen tasa | Gizona | 9,2% | 8,0% | | |
| | Emakumea | 8,5% | 7,3% | | |
| | Guztira | 8,9% | 7,7% | | |
| Lanaldi partziala | Mugagabea | 30.416 | 25.292 | 5.124 | 20,26% |
| | Aldi baterakoa | 369.164 | 360.102 | 9.062 | 2,52% |
| | Beste batzuk | 601.601 | 572.706 | 28.895 | 5,05% |
| | Guztira | 1.001.181 | 958.100 | 43.081 | 4,50% |
| | LP tasa | 39,9% | 40,2% | | |
| Lanaldi partziala | Gizona | 132.807 | 128.738 | 4.069 | 3,16% |
| | Emakumea | 266.773 | 256.656 | 10.117 | 3,94% |
| | Guztira | 399.580 | 385.394 | 14.186 | 3,68% |
| | Gizonen tasa | 26,5% | 26,8% | | |
| | Emakumeen tasa | 53,3% | 53,6% | | |
| | Tasa guztira | 39,9% | 40,2% | | |
| Prestakuntzakoak | Prestakuntzakoak | 9.309 | 8.707 | 602 | 6,91% |
| | Beste batzuk | 991.872 | 949.393 | 42.479 | 4,47% |
| | Guztira | 1.001.181 | 958.100 | 43.081 | 4,50% |
| | Prestakuntzakoak (%) | 0,9% | 0,9% | | |
| L. historikoa | Araba | 192.312 | 182.413 | 9.899 | 5,43% |
| | Bizkaia | 516.984 | 494.991 | 21.993 | 4,44% |
| | Gipuzkoa | 291.885 | 280.696 | 11.189 | 3,99% |
| | EAE | 1.001.181 | 958.100 | 43.081 | 4,50% |
| Gizonak | Lehen sektorea | 16.718 | 15.204 | 1.514 | 9,96% |
| | Erauzketa-industriak | 108 | 73 | 35 | 47,95% |
| | Manufaktura-industriak | 115.863 | 113.063 | 2.800 | 2,48% |
| | Energia | 79 | 83 | -4 | -4,82% |
| | Ura | 5.499 | 4.556 | 943 | 20,70% |
| | Eraikuntza | 33.548 | 33.026 | 522 | 1,58% |
| | Merkataritza | 44.482 | 43.671 | 811 | 1,86% |
| | Garraioa | 61.651 | 57.311 | 4.340 | 7,57% |
| | Ostalaritza | 60.620 | 56.843 | 3.777 | 6,64% |
| | Informazioa eta komunikazioa | 17.255 | 13.989 | 3.266 | 23,35% |
| | Finantzak eta aseguruak | 1.511 | 1.604 | -93 | -5,80% |
| | Higiezin sektorea | 518 | 455 | 63 | 13,85% |
| | Zientifikoak eta teknikoak | 14.097 | 13.417 | 680 | 5,07% |
| | Administraziokoak | 49.004 | 49.737 | -733 | -1,47% |
| | Administrazio publikoa | 5.468 | 5.103 | 365 | 7,15% |
| | Hezkuntza | 13.305 | 12.902 | 403 | 3,12% |
| | Osasuna eta gizarte-zerbitzuak | 24.397 | 24.092 | 305 | 1,27% |
| | Arte- eta jolas-jarduerak | 27.300 | 24.829 | 2.471 | 9,95% |

Kontratuen erregistroa 2018an

| | | 2018 | 2017 | Aurreko urtearekiko | |
|------------------------------|--|----------------|----------------|---------------------|--------------|
| | | | | Saldoa | Bil. % |
| | Beste zerbitzu batzuk | 8.083 | 8.369 | -286 | -3,42% |
| | Etxeetako jarduerak | 1.288 | 1.282 | 6 | 0,47% |
| | Lurraldez kanpoko erakundeak | 125 | 82 | 43 | 52,44% |
| | Guztira | 500.919 | 479.691 | 21.228 | 4,43% |
| Emakumeak | Lehen sektorea | 1.738 | 1.534 | 204 | 13,30% |
| | Erauzketa-industriak | 23 | 10 | 13 | 130,00% |
| | Manufaktura-industriak | 32.949 | 30.876 | 2.073 | 6,71% |
| | Energia | 70 | 55 | 15 | 27,27% |
| | Ura | 562 | 521 | 41 | 7,87% |
| | Eraikuntza | 2.012 | 1.782 | 230 | 12,91% |
| | Merkataritza | 65.979 | 65.161 | 818 | 1,26% |
| | Garraioa | 13.018 | 11.575 | 1.443 | 12,47% |
| | Ostalaritza | 101.118 | 93.404 | 7.714 | 8,26% |
| | Informazioa eta komunikazioa | 11.920 | 9.481 | 2.439 | 25,73% |
| | Finantzak eta aseguruak | 2.986 | 3.523 | -537 | -15,24% |
| | Higiezin sektorea | 834 | 751 | 83 | 11,05% |
| | Zientifikoak eta teknikoak | 18.942 | 17.899 | 1.043 | 5,83% |
| | Administraziokoak | 68.997 | 67.495 | 1.502 | 2,23% |
| | Administrazio publikoa | 7.805 | 7.136 | 669 | 9,38% |
| | Hezkuntza | 34.248 | 30.999 | 3.249 | 10,48% |
| | Osasuna eta gizarte-zerbitzuak | 90.396 | 90.990 | -594 | -0,65% |
| | Arte- eta jolas-jarduerak | 17.566 | 16.599 | 967 | 5,83% |
| | Beste zerbitzu batzuk | 13.008 | 12.927 | 81 | 0,63% |
| | Etxeetako jarduerak | 15.951 | 15.580 | 371 | 2,38% |
| Lurraldez kanpoko erakundeak | 140 | 111 | 29 | 26,13% | |
| Guztira | 500.262 | 478.409 | 21.853 | 4,57% | |
| Guztira | Lehen sektorea | 18.456 | 16.738 | 1.718 | 10,26% |
| | Erauzketa-industriak | 131 | 83 | 48 | 57,83% |
| | Manufaktura-industriak | 148.812 | 143.939 | 4.873 | 3,39% |
| | Energia | 149 | 138 | 11 | 7,97% |
| | Ura | 6.061 | 5.077 | 984 | 19,38% |
| | Eraikuntza | 35.560 | 34.808 | 752 | 2,16% |
| | Merkataritza | 110.461 | 108.832 | 1.629 | 1,50% |
| | Garraioa | 74.669 | 68.886 | 5.783 | 8,40% |
| | Ostalaritza | 161.738 | 150.247 | 11.491 | 7,65% |
| | Informazioa eta komunikazioa | 29.175 | 23.470 | 5.705 | 24,31% |
| | Finantzak eta aseguruak | 4.497 | 5.127 | -630 | -12,29% |
| | Higiezin sektorea | 1.352 | 1.206 | 146 | 12,11% |
| | Zientifikoak eta teknikoak | 33.039 | 31.316 | 1.723 | 5,50% |
| | Administraziokoak | 118.001 | 117.232 | 769 | 0,66% |
| | Administrazio publikoa | 13.273 | 12.239 | 1.034 | 8,45% |
| | Hezkuntza | 47.553 | 43.901 | 3.652 | 8,32% |
| | Osasuna eta gizarte-zerbitzuak | 114.793 | 115.082 | -289 | -0,25% |
| | Arte- eta jolas-jarduerak | 44.866 | 41.428 | 3.438 | 8,30% |
| | Beste zerbitzu batzuk | 21.091 | 21.296 | -205 | -0,96% |
| | Etxeetako jarduerak | 17.239 | 16.862 | 377 | 2,24% |
| Lurraldez kanpoko erakundeak | 265 | 193 | 72 | 37,31% | |
| Guztira | 1.001.181 | 958.100 | 43.081 | 4,50% | |
| Gizonak | <> | 19 | 37 | -18 | -48,65% |
| | Zuzendaritza | 1.161 | 1.141 | 20 | 1,75% |
| | Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak | 36.223 | 32.385 | 3.838 | 11,85% |
| | Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak | 42.108 | 39.201 | 2.907 | 7,42% |
| | Administrazioko langileak | 18.876 | 17.630 | 1.246 | 7,07% |
| | Zerbitzuetako kalifikatuak | 99.881 | 94.792 | 5.089 | 5,37% |
| | Oinarrizko kalifikatuak | 3.437 | 3.140 | 297 | 9,46% |
| | Industriako kalifikatuak | 69.475 | 69.813 | -338 | -0,48% |

Kontratuen erregistroa 2018an

| | | 2018 | 2017 | Aurreko urtearekiko | |
|--|--|------------------|----------------|---------------------|---------------|
| | | | | Saldoa | Bil. % |
| | Operadoreak | 55.454 | 58.150 | -2.696 | -4,64% |
| | Kalifikatu gabeak | 174.285 | 163.402 | 10.883 | 6,66% |
| | Guztira | 500.919 | 479.691 | 21.228 | 4,43% |
| Emakumeak | <> | 18 | 20 | -2 | -10,00% |
| | Zuzendaritza | 644 | 591 | 53 | 8,97% |
| | Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak | 61.044 | 56.309 | 4.735 | 8,41% |
| | Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak | 38.116 | 36.037 | 2.079 | 5,77% |
| | Administrazioko langileak | 37.866 | 36.528 | 1.338 | 3,66% |
| | Zerbitzuetako kalifikatuak | 211.914 | 207.131 | 4.783 | 2,31% |
| | Oinarrizko kalifikatuak | 307 | 278 | 29 | 10,43% |
| | Industriako kalifikatuak | 6.358 | 6.376 | -18 | -0,28% |
| | Operadoreak | 9.428 | 9.088 | 340 | 3,74% |
| | Kalifikatu gabeak | 134.567 | 126.051 | 8.516 | 6,76% |
| | Guztira | 500.262 | 478.409 | 21.853 | 4,57% |
| | Guztira | <> | 37 | 57 | -20 |
| Zuzendaritza | | 1.805 | 1.732 | 73 | 4,21% |
| Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak | | 97.267 | 88.694 | 8.573 | 9,67% |
| Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak | | 80.224 | 75.238 | 4.986 | 6,63% |
| Administrazioko langileak | | 56.742 | 54.158 | 2.584 | 4,77% |
| Zerbitzuetako kalifikatuak | | 311.795 | 301.923 | 9.872 | 3,27% |
| Oinarrizko kalifikatuak | | 3.744 | 3.418 | 326 | 9,54% |
| Industriako kalifikatuak | | 75.833 | 76.189 | -356 | -0,47% |
| Operadoreak | | 64.882 | 67.238 | -2.356 | -3,50% |
| Kalifikatu gabeak | | 308.852 | 289.453 | 19.399 | 6,70% |
| Guztira | | 1.001.181 | 958.100 | 43.081 | 4,50% |
| ABLE | | Gizonak | 135.774 | 125.325 | 10.449 |
| | Emakumeak | 62.385 | 53.822 | 8.563 | 15,91% |
| | Guztira | 198.159 | 179.147 | 19.012 | 10,61% |
| Pertsona-kopurua | Gizonak | 166.216 | 158.531 | 7.685 | 4,85% |
| | Emakumeak | 147.331 | 139.750 | 7.581 | 5,42% |
| | Guztira | 313.547 | 298.281 | 15.266 | 5,12% |
| | Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak | 139.188 | 130.846 | 8.342 | 6,38% |
| | Batxilergoa | 64.850 | 62.708 | 2.142 | 3,42% |
| | LHko ikasketak | 51.741 | 49.318 | 2.423 | 4,91% |
| | Unibertsitate-ikasketak | 55.463 | 52.986 | 2.477 | 4,67% |
| | Atzerritarra | 47.204 | 41.921 | 5.283 | 12,60% |
| | Bertakoa | 266.343 | 256.360 | 9.983 | 3,89% |
| | <> | 48 | 50 | -2 | -4,00% |
| | Aberrigabea | 116 | 76 | 40 | 52,63% |
| | Europako Erkidegoa | 5.903 | 5.450 | 453 | 8,31% |
| | Erkidegokoa ez den Europa | 7.171 | 6.854 | 317 | 4,63% |
| | Txina | 1.136 | 1.162 | -26 | -2,24% |
| | Japonia | 27 | 26 | 1 | 3,85% |
| | Asiako beste herrialde bat | 3.290 | 2.935 | 355 | 12,10% |
| | Saharaz hegoaldeko Afrika | 5.252 | 4.387 | 865 | 19,72% |
| | Afrikako iparralde | 7.400 | 6.129 | 1.271 | 20,74% |
| | Ipar Amerika | 179 | 155 | 24 | 15,48% |
| | Erdialdeko eta Hego Amerika | 16.654 | 14.668 | 1.986 | 13,54% |
| | Ozeania | 28 | 29 | -1 | -3,45% |
| | Atzerritarrak guztira | 47.204 | 41.921 | 5.283 | 12,60% |